

DEMA-Bizkaiko Enplegu eta Ekintzailtzako Foru Agentziak ekintzailtzako aholkularitza teknikari elebidun bat kontratatu behar du, aldi baterako.

Hautatuko den pertsonak DEMAren ekintzailtzako kultura zabaltzeko lantaldean egingo du lan, eta eginkizun nagusi hauek izango ditu:

- Ekintzailtzari buruzko tailerrak ematea, euskaraz eta gaztelaniaz, Bizkaiko Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleei, lehiaketan negozio-ideiak aurkez ditzaten motibatze aldera.
- Ikasle taldeen tutore-lanak egitea, negozio-planak garatzeko laguntza eta aholkuak emanez.
- Lanbide Heziketako ikastetxeetako irakasleekin elkarlanean jardutea eta ekintzak koordinatzea.
- DEMAko lantaldearekin ere elkarlan estua izatea, programaren barne-kudeaketan, jarduerak eta ekitaldiak antolatzen, eta hautaketak egiteko epaimahaietan parte hartuta.

BALDINTZAK:

- Euskaraz ahoz nahiz idatziz ezin hobeki aritzea, eta bi hizkuntzetan komunikatzeko gaitasun handia izatea.
- Irakaskuntzarako gaitasuna: trebetasun didaktikoak prestakuntza-saioak antolatzeko eta emateko, ikasleekiko enpatia eta gertutasuna.
- Taldeak dinamizatzeko gaitasuna: lider izatea, taldeak motibatzea eta bideratzea.
- Ezagutzak/esperientzia izatea ekintzailtzako aholkularitzan: negozio-planak egitea eta enpresak abiaraztea.
- Prestakuntza-profila: unibertsitateko lizentzia edo gradua, ahal dela giza edo gizarte-zientzien eta zientzia juridikoen arloetan.
- Gida-baimena eta autoa izatea.

KONTUAN HARTUKO DA:

- Bizkaiko ekintzailtzaren ekosistemako erakundeen eta enpresen sarea ezagutzea.
- Esperientzia profesionala irakaskuntzan, baita enpresa-ekintzailtza bultzatzeko postu teknikoetan ere.

ESKAITZEN DA:

Lanean 2023ko irailaren hasieran hastea, lanaldi osoz, ordezkapen-kontratuarekin (aurreikuspena: 9-12 hilabete) eta lanpostuari dagokion soldata.

IZENA EMATEKO EPEA:

Hautagaitzak jasotzeko epea 2023ko uztailaren 16an amaituko da, 23:59an. Hautagaitzak aurkezteko esteka:

<https://web.dema.eus/izenematea/ofertaempleoemprendimiento.php>